

**GABON HAUETAN, ZUK ASKO DUZU IKUSTEKO.**

**Aukera gara. Itxaropena gara.**

Abenduko eta Gabonetako garai honetan, Jesusekin berriro jaiotzeko aukera dugu, eta izatera deituak gauden pertsonak izaten saiatzeko, ahulak eta zaurgarriak izan arren, inguruan ditugun pertsonen bizitza hobetzeko gauza handi eta ederrak egiteko gai garen pertsonak izaten saiatzeko.

Gabonetan, besteentzat eskuzabaltasunez distira egiteko dugun gaitasuna ateratzen dugu, begirada, irribarre edo keinu simple eta solidario baten bidez. Horrela adierazten dugu beste pertsona batzuk, gure bizitzatik gertu eta urrun gertatzen diren beste errealitate eta gertaera batzuk, benetan axola zaizkigula.

Urtea amaitzear dagoela, ez dugu hasi genuena baino hobeto amaituko, eta atsekabegarria dirudi. Gerra-gune berriek eta derrigorrezko desplazamenduek larritasunez betetzen gaituzte, eta ezinean sufritzen ari diren milaka gizakiren irudiek gainditu egiten gaituzte; klima-aldaketaren erlojuak atzera bueltarik gabeko atzerakada bat hasi duela dirudi, eta atzerakada horretan, agerian geratzen da gizakiak azken mendeetan naturan izan duen esku-hartze neurrigabea, Frantzisko aita santuak "Laudate deum" bere azken entziklikan adierazten duen bezala.

2008ko Atzeraldi Handitik aurrera, badirudi ez dugula bururik altxatzen, flotatzen jarraitzeko ahaleginean krisi batetik bestera igarotzen garela ikusita. Baina gizarte-eskalan posizio ahulena duten pertsonak dira borroka horri nekez eusten diotenak: enplegu prekarioak edo kontraturik gabekoak dituzten pertsonak, adingabeak ardurapean dituzten familia handiak, pilaketa- edo gutxiegitasun-egoeran dauden pertsonak.

Ukrainako eta Lurralde Santuko gerrek bake- eta ulermen-bideak eraikitzeke premia larriaz ohartarazten gaituzten garai honetan, itxaropenari eusteko premiaren eta pobrezian eta pobrezia horretatik ateratzeko aukerarik ezean milaka pertsona itotzen dituen desberdintasunaren artean gabiltza.

Caritasen badakigu zertaz eta nori buruz ari garen.

"Ez dut inoiz neure burua ikusezintzat jo, baina badakit zer den ikusezintasun-sentsazioa. (...) Biziraupen-egoerak oso atzeratuta egotera eramaten zaitu, baina ez arlo ekonomikoan, hori ez baita guztia, noski. Plan psikologikoaz, moralaz, autoestimuz, nahikoa energia izateaz ari natzaizu hitz egiten".  
(Etixerik gabeko pertsonaren lekukotza. Caritasen txostena "Lan bat, gela bat, katu bat").

Euren bizitzak hobetzeko aukera berriak behar dituzten ehunka lagun eta familiari laguntzeko eta horiek zaintzeko, enplegu faltak sortzen duen hutsunetik ateratzeko edo, etxebizitza bat eskuratzea zaila edo ia ezinezkoa dan arren, etxe batean bizitza

proiektatzeko, Elizbarrutiko Caritasek eta bere parroketako Caritas sareak herri eta hirietan martxan jarri dituzten proiektu eta programen parte dira pertsona horiek. Askotarikoak dira pertsona bat, egun batean, behar den guztia dugun pertsona gehienok ulertzen dugun bizimodu arrunt eta ohiko batetik kanpo egotera eraman duten inguruabarrak. Hala, egun batean kalean dago, bortxatua, abandonatua, prekarizatua, bakarrik eta baliabiderik gabe. Asko dira bizitza une batetik bestera hondatzea eragiten duten gorabeherak. Dena alda daiteke hirurehun eta hirurogei graduko bira emanda.

Gabon hauetan hor izango dira ikusten ditugun argiak, alaitasuna, festa eta pertsona guztiok bizitzeko behar dugun itxaropen- eta argi-premia hori ospatzeko gogoia. Baina hor izango dira gure bihotza iluntzen duten itzalak ere: gure mahaian berriz eseriko ez direnen absentiak, senide edo lagunekin konpondu gabeko gatatzak, gure karga pertsonalak eta geure inkoherentzien tristura.

Eta horrekin guztiarekin batera, urrun sentitzen dugun eta ikustea zaila egiten zaigun Eguberri hori ere egongo da, itsutzen gaituzten eta etxe askotan pobrezia eta bakardadearen itzalak, leku bat, lur bat, izateko eta bizitzeko etxe bat bilatzen dutenen itzalak eta planetako hainbat lekutan bake- eta bizikidetzak-ametsak ezkututzen dituzten itzalak ikustea eragozten diguten argi distiratsu horien atzean ezkututzen dena.

Foessa fundazioaren Análisis eta Perspektibak txosten egin berriak erakusten dizkigun Gabonak dira: "Diru-sarrerak eta gastuak: gure bizi-kalitatea baldintzatzen duen ekuazioa". Txosten horretan erakusten da diru-sarreraren eta gastuen indizeak eta horien proportziorik ezak erabakitzen duela duintasunez bizitzeko nahitaezkoak diren elikagaiak edo etxebizitza bezalako oinarrizko ondasunak eskuratzeko aukera.

- Familien % 16,8 pobrezia larriaren atalasearen azpitik geratzen da etxebizitza eta oinarrizko hornidurak ordaindu ondoren.
- Diru-sarrera gutxien duten familiek 10 eurotik 6 baino gehiago erabiltzen dituzte etxebizitzan eta elikaduran.
- Alokairuan bizi diren biztanleen % 16k estres finantzarioaren muturreko maila dute, hau da, diru-sarreraren % 60 baino gehiago alokairua ordaintzeko erabiltzen dute.

## **GABONAK HELBURU BERRI BATEKIN**

Gabon hauetan beste aukera bat dugu itxuraren, azalkearen eta bere apeta edo beharretik harago ikusten ez duen poztasun errazaren argiek itsutu ez gaitzaten. Egia da hor dagoela itzalaren eta mina, gaixotasuna eta heriotza digeritu ezin ematen duen larritasunaren tentazioa ere. Baina Jainkoa gure bila etortzen da, bera ikusteko edo sentitzeko gai ez bagara ere.

Aukera dugu inguratzen gaituen errealitatea hobeto ikusteko eta begirada enfokatu eta itxaropenaz hitz egiten diguten bizi-zeinu berriak alde batera ez uzteko.

Ted Dunnek dioen bezala, "gure ahultasuna eta bere ahalmen eraldatzailea besarkatzeko" eta bizitzak esan nahi diguna elkarrekin bilatzeko eskatzen digun *graziazko bidegurutze* batean gaude. Mundu hau ez da hiltzen ari, eraldatzen ari da.

Bizi ditzagun Gabon hauek beste era batera, berrikus ditzagun gure fedea, bizitzaren aurrean dugun jarrera eta pentsatzeko, erreakzionatzeko eta sentitzeko dugun modua, eta eman dezagun pausoa Jesusekin berriro jaiotzeko, Nicodemok berak egin zuen bezala, eta begi berriekin ikusi ahal izateko.

“«Bene-benetan diotsut: ezin du inork Jainkoaren Erreinua ikusi, berriro jaiotzen ez bada». Nicodemok galdetu zion: «Nola jaio daiteke norbait, jadanik zaharra izanik? Berriro sartu ahal izango da amaren sabelean eta berriro jaio?». Jesusek erantzun zion: «Bene-benetan diotsut: urez eta Espirituz jaiotzen ez denak ezin du sartu Jainkoaren erreinuan” (Jn 3, 3-5).

### **Enfokatu begirada eta ireki bihotza.**

Ezin dugu begirada lausotzen utzi beldurrarekin, nagikeriarekin, axolagabekeriarekin edo etsipenarekin munduan eta gure errealitate hurbilenean gertatzen diren gauzen aurrean. Ikusteko, beharrezkoa da konfiantza izatea, berriro haur bihurtzea, eta harridura berri, apal eta xumearekin zain egotea.

Begirada enfokatzeko garaia da, gure begiratzeko modua zuzentzeko betaurreko egokiak jartzeko eta gure inguruan gertatzen ari denaren aurrean kokatzeko. Abendu garaia oso berezia da, erresistentziak alde batera uzten baditugu eskutik helduta eramaten gaituena, eta benetan bizi eta ikusi nahi dugun horretan enfokatzen lagun diezaguke.

Jainkoaren garaia dator, gu harritzeko eta nahasteko berriro presente egon nahi duena, gure atea jo eta gure etxean sartzeko.

“Begira, zutik nago ate ondoan eta deika ari naiz. Norbaitek nire ahotsa entzun eta atea irekitzen badu, bere etxean sartu eta berarekin afalduko dut eta hark nirekin.” (Ap. 3,20)

### **Begiratu munduari Jainkoaren begiekin**

Batzuetan, bizitza basamortu bera bezalakoa da, izugarria, gainezka egiten duena, baina hutsa. Estresatuta eta planez eta jardueraz beteta bizi gara, bakardadearen,

bizitzaren zentzurik ezaren, geure gizatasunean txertatutako minaren hutsunea sentiarazten diguten basamortuei aurre ez egiteko. Hain zuzen ere, gure bizitzako basamortu bakoitzean entzun dezakegu gure baitan bizi den egia.

“Basamortuan, prestatu bidea Jaunari”. Basamortuan aurkitzen dugu benetan garen egia, eta hor bertan sortzen da beste modu batera ikusteko eta behatzeko aukera. Egarririk, beharretik sortzen den begirada da. Jesusek Jainkoaren ontasunetik eta samurtasunetik munduari egiten dion begirada berria da, eusteko premia duen gure gizatasun hauskor eta apurkorra behatzen duena.

“Begira, zerbait berria egiten ari naiz; sortzen ari da, ezta? Bide bat irekiko dut basamortuan, korronteak eremuan” (Is 43, 19).

Jesusen bizitzaren helburua **mundua Jainkoaren maitasunezko begiradaz nola behatu behar dugun** erakustea da, hori delako berak bere basamortuan ikusi eta aurkitzen duen egia. Jesusek bihotzaren begiekin begiratzera gonbidatzen gaitu, gizakia denez, berak hautematen duen norabide berean begiratzera gonbidatzen gaitu, eta senitarte gisa guztiok batzen gaituzten ontasun, egia eta edertasunaren helburu unibertsalean haragitutako Jainkoaren maitasunaren isla den Kreazio osoari begiratzera. Dena ematen duen maitasun horretatik mundua eta pertsonak ikusteak eta haiekin harremanak izateak zerbitzu, dohaintza eta itxaropen bihurtzen du bizitza.

### Jarri begirada ekinean

Pertsona guztiok dugu zerikusi handia besteek izan ditzaketen aukeretan. Zuk egiten duzunak edo egiten ez duzunak, egin dezakezun ekarpenak bizia eman, bakardadea arindu, arima sendatu dezake, beste batzuei bizitza horietan beste bizitza bat sortzen dela sentiarazi diezaieke. Gure zeregina ez da soilik besteen beharrak asetzea, pertsona orok barruan dituen **bizitza berrirako aukera guztiak aurkitzea** baizik, eta hori itxaropen bihurtzen da.

"Itxaropena ez da gauzak ondo aterako diren uste osoa, azken emaitzatik harago zentzua duten gauzak egotearen ziurtasuna baizik" (Vaclav Havel).

Gure ziurtasuna da Jainkoa ez dela nekatzen maitatzeaz eta hori berri on bihurtzen da. Jainkoak gizadiarekiko duen maitasuna ekintza bihurtzen da Jesusen bizitzan. Itxaropena ez da baikortasun erraz eta inozoa, erabaki bat da, Jainkoarengan botatako gure aingura da, Dolores Aleixandrek esanda bezala, rscj.

Itxaropenerako garaia da, baina ez ezazu kanpoan bilatu. Itxaropena zure baitan dago eta Gabon hauetan haxe izan daiteke zure helburu bakarra:

## **Itxaropena izatea. Itxaropena partekatzea. Itxaropena argitzea.**

Bizi dezagun Abendu eta Gabon garai hau hitz egin eta ulertzen duen, errukitzen den eta samurtasunez betetzen den, eta jasotzen dituenari poztasuna, atsedena eta itxaropena ematen dioten elkarretaratze eta keinu bakunak ehuntzera gonbidatzen duen **begirada berri** batekin.

### **Keinua sare sozialetan**

**Hashtag:** #ZukAskoDuzulkusteko

Karitate astean bezala, taldeko argazki bat egingo dugu eta kanpainako 3 gonbidapenak kartoi mehe batean, horma-irudi batean, edo sortzaileagoa iruditzen zaizuen moduan idatziko ditugu: **Izan itxaropena. Partekatu itxaropena. Argitu itxaropena.** Eskuaren Karitatearen keinu bera erabil dezakegu begian begirada enfokatu, edo piztutako faroltxo bat gure errealitateari eta beste batzuenari itxaropena argitu nahi izatearen adierazgarri gisa Keinu honen bidez, boluntarioek, parte-hartzaileek, teknikariek eta Caritasekin lotutako pertsonak keinu honekin bat egin dezakete. Parrokietan, parrokia-elkarteari eta liturgia-, katekesi- eta pastoral-taldee... parte hartzeko gonbitea egingo zaie, eta **guziok dugu asko ikusteko** munduarentzako itxaropena izateko, partekatzeko eta argitzeko.



Aldi berean, sare sozialen bidez, jende guztia gonbidatuko dugu keinu honekin bat egitera eta elizbarrutiko profiletan adierazitako hashtagarekin partekatzera.

### **Esaldiaren adibidea:**

**Gabon hauetan #ZukAskoDuzulkusteko** itxaropena partekatzeko.

Enfokatu begirada, ireki bihotza eta izan itxaropena gainerakoentzat.

### **Otoitz egiteko txokoa**

“Gure zauriak sendatzera eta gure ahuleziez arduratzera dator, baina beste batzuen pobreziak eta zurztasunak hartzera ere gonbidatzen gaitu. Jaunari bidea irekitzea, estepan galtzada zuzen bat trazatzea, aukera berri bat oparitzea eta geure buruari oparitzea da ”.

**Irakurketa:** Mateoren Ebanjelioa 11, 28-30

“Aldi hartan, Jesusek esan zuen:

*Zatozte niregana nekatuta eta estututa zaudeten guztiok, eta nik arinduko zaituztet. Eraman ezazue nire uztarria eta ikas ezazue nigandik, bihotzez otzana eta apala bainaiz, eta zuen atsedena aurkituko duzue. Nire uztarria eramangarria da eta nire zama arina”.*

**Otoitza:**

“Eta maitasuna atera zen, gure bideetan barrena ibiltzera,  
hiriak bisitatzera, jende artean nahastera.  
Haize bitxi batek eramán eta ekartzen zuen,  
eta berarekin zindoazen bere ahotsa, alaitasuna eta mezua:  
Bihur dezagun maitasuna gure seinale!  
Dohatsuak maitasun agortua berritzen dutenak!  
Dohatsuak maitasun zauritua sendatzen dutenak!  
Dohatsuak maitasun itzalia pizten dutenak!  
Dohatsuak maitasun eroria altxatzen dutenak!  
Dohatsuak maitasun erratua barkatzen dutenak!  
Dohatsuak maitasun okerra zuzentzen dutenak!  
Dohatsuak maitasun lotua askatzen dutenak!  
Dohatsuak jasotako maitasuna ematen dutenak!  
Dohatsuak hildako maitasuna berpizten dutenak!  
(Seve Lázaro, sj)

**Poema:**

“Begiratzea ez da soilik begien kontua.  
Lehenbizi, itxi itzazu une batez  
eta bilatu zure barnean –zure soseguan–  
ikusteko ahalmena. Eta orain, ireki itzazu eta begiratu.  
Hor kanpoan urtarrila da, baina oso ederra dago  
bizia gaur goizean.  
Zenbat eguzki makaletan,  
zure hiriko  
plaza zahar honetan,  
errenkada dardartietan hazten ari direnetan. Egun batean eta bestean,  
hainbat eta hainbat urtez,  
haien ondoan igaro eta ez dituzu ikusi,  
pena ematen zenuen itsua zinen eta gaur, azkenean,  
mirariz sendatu eta ikusteko gai zara  
eta zure begiradan salbatzen zara”.  
(Eloy Sánchez Ferlosio).

